

## Herririk Herri

Korrika 18k euskararen aldeko aldarria zabaldu du Durangalde osoan zehar > 2



## 210 lanpostu arriskuan Iketzen eta San Eloy

Iketz (Abadiño) eta San Eloy (Elorrio) enpresa taldea zarratu ez dadin, azken ahaleginak egiten dabilta. Sindikatuak Jaurlaritzara joan dira, eta zapaturako manifestazioa deitu dute, Elorrion > 3



Argazki Press

## Larrialdietarako zortzi etxebizitza erregulatu ditu Durangoko Udalak > 6

Etxebizitzak bizitzeko moduan egokitzea izango da udalak emango duen hurrengo pausoa

Udalaren jabetzakoak diren zortzi etxebizitza larrialdi kasuetarako prest egongo dira laster. Martitzeneko udalbatzarrean etxe horien erabilera zehazteko arautegia onartu zuten. Zortzi etxeetatik bi baino ez daude guztiz ekipatuta. Beste seiak

egokitzea izango da udalaren hurrengo pausoa. Intxaurren daude etxeetako batzuk. Familiako arazo larri batek segurtasuna arriskuan jartzen duenean, etxea jausteko zorian dagoenean eta beste hainbat kasutan eskatu ahal izango dira.



## Gure Kide

Medikuntza - Análisi klinikoa - Ekografia  
Erradiologia - Kirurgia - Ospitalizazioa  
Ile-apainketa - Osagarriak

www.gurekide.es



### ORDUTEGIA

Astelehena,  
asteazkena  
eta ostirala  
10:00 - 13:30  
17:00 - 20:00

Asteartea  
eta osteguna  
09:00 - 18:00

Larunbata  
10:30 - 13:30

### Durango > 5

Bonbardaketa kandelen argiagaz gogora ekarriko dute

### Elorrio > 8

Udaltzainek Ertzaintzagaz lanak koordinatzeko sistema dute

### Otxandio > 8

Zuhaitz Egunean 200 haritz eta pago landatuko dituzte

### Mallabia > 6

Garazi Mugerzak Azkue Literatur Saria irabazi du narrazio sailean



# Herririk herri

KORRIKA 18 pasatu da. Beste urte bi itxaron beharko doguz barrero hurrengoia pasatu daiten, eta bien bitartean, beharrea jarraitu beharko dogu euskalakari gehiago egon daitezen. Durangaldeko AEK-k benetan eskertzen deusue danori korrika honetan egin dozuena ahalegina arlo guztietan (korrika kulturala, korrika txiki, korrika lagun, korrika laguntzaile, korrikalari, espaloietako ikusle, material edo kilometro erosle...). Danok behar zaituegu hurrengoak be hain ederra eta arrakatsua urten daien.

Eskerrik asko, Durangaldea!!!!  
Durangaldeko AEK





**> DURANGALDEA**

# San Eloy Taldeko lanpostuak defenda ditzala eskatu diote Jaurlaritzari

Jaurlaritzari 210 lanpostu babestu eta Volkswagenekin bitartekari egin dezala eskatu diote; enpresa taldeko akzioen %18ren jabe da Jaurlaritza

**> M. ONAINDIA / J. GUENETXEA**

San Eloyko (Elorrio) eta Iketze-ko (Abadiño) beharginek ardura handiz bizi dute euren enpresa taldearen egoera. Eguaztenean, Legebiltzarrerara joan ziren Industria batzordearen eztabaida bertatik bertara ezagutzera. EH Bilduk San Eloy Taldearen inguruko mozioa aurkeztu zuen, Durangaldeko LABeko delegatuak Legebiltzarraren aurrean elkarretaratzea egiten zebiltzan bitartean.

LAB sindikatuak jakitera eman duenez, enpresan diharduten 210 langileen lanpostuak defendatu eta Volkswagenekin bitartekaritza lana egiteko eskatu diote Jaurlaritzari: "Arantza Tapia Industria sailburuak esan digu, eurek ez direla enpresen kudeatzaileak, eta ezin dutela horrelakorik egin". Sindikatuek diotenez, ostera, Eusko Jaurlaritza egoeraren arduraduna da, enpresaren akzioen %18 duela: "Azken urteetan enpresaren gestio txarra txalotu dute. 2010ean San Eloyri 1.300.000 euro eman zizkieten eta aurrerago

beste 1,5 milioi euro baino gehiago, eta Iketzi 600.000 euro, diru horren erabilpenaren ezelako kontrolik egin barik".

### "Estrategikoa da"

Dani Maeztu EH Bilduko legebiltzarkideak dioenez, San Eloy Taldea estrategikoa da Durangaldean. 2010etik hona Jaurlaritzak Iketz eta San Eloy 3,4 milioi inbertsioa egin eta gero, "ulertezina" egiten zaio enpresan ezer ez planteatzea. "Jaurlaritzak enpresaren biziraupena berme baten bidez lotu dezake eta, beharrezkoa balitz, berme hori Volkswagenei eman".

### Inbertsore bila

LAB eta ESK sindikatuek azaldu dutenez, Iketzen apirilera arteko lana daukate, eta San Eloy maiztzerako artekoa. 2012ko irailean, enpresa biak konkurtso prozeduran sartu ziren, eta orain arte egindako saiakerak ez dute emaitza onik eman. Ez dute inbertsorarik lortu, eta bezeroak alde egiten dabilta.

LAB eta ESK: "Arantza Tapia Industria sailburuak esan digu eurek ez direla enpresa kudeatzaileak"



LABeko delegatuak Industria batzordearen eztabaida beste gela batetik zuzenean entzun ahal izan zuten. Argazki Press

# LABek eta ESK-k manifestazioa deitu dute zaturako, Elorrion

"Iketz eta San Eloy Bizirik" lelopean irtengo dira 18:00etan plazatik



Beharginek manifestazioa deitu dute zaturako, Elorrion. Arratsaldeko 18:00etan plazan jarri dute hitzordua.

ELAk protesta ekitaldia babesten duela adierazi du, "bere helburuak konpartitzen ditugulako". Hala ere, ELAk enpresa taldean ordezkaritzaren herena duen arren, ez du manifestazioaren berri izan publiko egin den arte: "LABek eta ESK-k horrela izatea gura izan dute, konkurtso egoera guztian izan duten transparentzia faltarekin jarraituta". Edonola ere, gertaera larri horiek alde batean utzita, manifestazioan parte hartzeko dei egin diote afiliatu guztiei. Adierazpen hauei erantzunez, LABek eta ESK-k diote enpresa komitean orain arte hainbat

mobilizazio plateatu dituztela eta ELAk ez duela bat egin. "Ez zela mobilizazioetarako momentua esan dute. Horregatik, jarrera aldaketa oso begi onez ikusten dugu".

Durangaldeko Sortuk ere bere elkartasuna adierazi die langileei, eta manifestazioan parte hartzeko dei egin dute: "Beharrezkoa deritzogu herritarren, sindikatuen, eragile sozialen eta eragile politikoen artean indarrak biltzea".

ELA sindikatuak protesta ekitaldia babesten duela adierazi du, "helburuak konpartitzen ditugulako".

**A. Urreta** psicólogo

- Oinetako patologiak
- Neurri-egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien, 10 behea  
48200 DURANGO  
Tel./Faxa: 94 621 54 04

**Ainara Urreta Jainaga**

**aste santuan Barrakak Doan erosteketa ticketarekin**

+ dendak elkarteko establezimendu bazkideetan egindako 20€-ko erosketekin, ticket batean edo gehiagotan. Ticketak martxoaren 1etik aurrera egindako erosketek dagozkienak izan behar dira. Trukea +dendak elkarteko bulegoan egingo da apirilaren 5a arte.

**DURANGO** UMa Ayuntamiento

**durango** Dendak Bai



# OSASUN GIDA



Profesional  
onenak zure  
zerbitzura!



## PEDAGOGIA

### UGATZ

#### UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,  
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazarán, 1 behea  
48200 DURANGO

tel. 94 466 83 70 - 615 782 090



## PSICOLOGIA



#### JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Ansietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO  
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz

tel. 94 603 32 46 - 629 245 728



## FISIOTERAPIA

### Zainduz

#### FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,  
behe-eskuma  
48220 MATIENA-ABADIÑO

tel. 94 465 71 32 - 686 906 374



#### HIRU FISIOTERAPIA

astehenetik ostiralera 08:00 - 21:00  
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4  
48200 DURANGO

tel. 94 466 94 00



#### FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txizari ezin  
eustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,  
drenatze linfatikoa (masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 - behe ezkerre  
48240 BERRIZ

tel. 94 622 55 93



## PODOLOGIA



#### JON GERRIKAETXEBARRIA

Gaixotasunak - Ortopedia  
Oinaren kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma  
48200 DURANGO

tel. 94 620 11 00



#### GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA

Kiropodia, Onikopatia, Alterazio  
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4 - behea  
48200 DURANGO

tel. 94 620 36 30



## ESTETIKA

**AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

[www.medicinaesteticaDurango.com](http://www.medicinaesteticaDurango.com)

#### Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,  
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...  
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botox...

Txatxiena, 6  
48200 DURANGO

tel. 94 681 03 87



## ODONTOLOGIA



#### B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA  
ETA ESPEZIALIZATUA

Murueta Torre, 2 - C behea  
48200 DURANGO

tel. 94 681 99 51



#### J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
IMQ, PADI (umeen hortz programa)  
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk  
48200 DURANGO

tel. 94 681 22 00



## KIROMASAJEA

### shiatzu

KIROMASAJEA

#### KIROMASAJEA DIGIPUNTURA

Komentu kalea 15  
48200 DURANGO

tel. 94 620 00 52



**> DURANGO**

# Kandelen argia, bonbardaketaren biktimak oroitzeko

Bonbardaketaren 76. urtemugaren harira prestatutako ekitaldien aurkezpena egin dute

**> MARKEL ONAINDIA**

Kandelak piztuz gogoratuko dituzte 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketaren biktimak. 76. urtemugaren egunean bertan egingo dituzte ekitaldi esanguratsuenak, ohi den legez. Baina, aurreko egunetarako ere hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Horien guztien aurkezpena egin zuten martitzenean Aitziber Irigoras alkateak eta Jon Irazabal Gerediagako kideak, eta azaldu zuten bezperan herritarrekin batera kandelak isiotuko dituz-

tela Andra Marin, faxisten erasoaren ondorioz jende gehien hil zen lekuan. Kandlekin, elizpeko lurraren marrazki geometrikoa osatuko dute. Gainera, lazo zuriak banatuko dituzte. Irigoras arrazoitu du: "Oroimenaren ezaugarria ahalik eta jende gehienak eduki dezan". Biktima guztiak omenduko dituzte, ez hildakoak bakarrik.

Hilaren 31n, goizeko 09:30ean egingo diete Gerra Zibilaren biktimei omenaldia kanposantuan. Gero, 12:30ean, Geredia-



Irazabal eta Irigoras, martitzenean, udaletxean egindako aurkezpenean.

gak eta Kriskitinek eratutako oroimen ekitaldiaren txanda izango da, Andra Marin.

**Dokumentu berria**

Gainerako ekintzen artean, Angel Viñas diplomatikoak eskai-

niko duen berbaldia nabarmendu du Irazabalek. Apirilaren 12an izango da, eta bonbardaketan Alemaniak eta Italiak eduki zuten arduraz jardungo du. Dokumentu berriren bat ere ekarriko ei du.

Bestalde, Gerediagako kideak gogoratu du aurten 75 urte pasa direla agente militarrek Durangaldean euskara debekatu zuenetik. "Gerra Zibilean lehenengo eraso izan zen euskara desagertzeko".

# 200 ardo eta mariskoa, Ardo Saltsan azokako protagonistak

Bihar egingo da ardoan eta delikatessen produktuetan oinarritzen den azoka

**> M. O.**

Bihar egingo da Landako Guñean Ardo Saltsan azokaren sei garren edizioa. Ardoan eta delikatessen produktuetan oinarritzen da azoka hau, eta antola-

tzaileek esan dutenez, hemengo zein atzerriko 52 upategik parte hartuko dute. 140 ardo marka, eta 200 mota baino gehiago probatzeko aukera egongo da bertan.



Iazko Ardo Saltsan azokan hartutako irudi bat.

Jatekoen atalean, mariskoa izango da protagonista. "Gastronomia finena eskainiko digute ostra asturiarrak bizirik egosiko dituen *pulpeiro* batek, eta miniatuzko sukaldaritza prestatuko duen Iñaki Uribek". Saltsan catering etxeak ere hainbat plater prestatuko ditu.

11:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik. Ardo eta delikatessen jakien "paradisua" izan gura duela esan dute arduradunek. Bertara sartzeko, hamabost euro ordaindu beharko dira.

Ardo eta delikatessen jakien "paradisua" izan gura duela esan dute arduradunek

**'Kiribil' erakusketa**

Egun guztian egingo dituzte enologiagaz eta gastronomiagaz lotutako hainbat ekitaldi Landakon. Esaterako, Gotzon Garaizabalek eta Peru Magdalenak *Kiribil* aurkeztuko dute, argazki erakusketa poetikoa.

# Presoei ezarritako 'Parot doktrina' indargabetzeko eskatu du udalak

Bilduk eta Aralarrek aurkeztutako mozioa onartu du udalak, EAJren babesagaz

**> M. O.**

Bilduk eta Aralarrek aurkeztutako mozioa onartu zuen martitzenean Durangoko Udalak, EAJren babesagaz. 197/2006 doktrina, 'Parot doktrina' legez ezagutzen dena, indargabetzea eskatu dute. PSE-EE abstenitu egin zen, eta PPK kontra egin zuen. Bilduko Urdaspal Bolinagaren ustez, garaile eta garaituen diskurtsoa atzean uzteko sasoia da, "konponbiderako egoera batean gaude". Aralarreko Dani Maeztuk esan zuen argi dagoe-

la lege hau mendeku doktrina bat dela: "Giza eskubideen kontrako neurria da". EAJko Goiztidi Diazek bere taldearen jarrera berretsi zuen, legebiltzarreko erabakia jarraituta.

PSE-EEko Pilar Riosen iritziz, gai oso konplexua da juridikoki, eta udalaren eskumenez gandi dago. PPKo Juan Jose Gastañazarrek doktrina defendatu zuen: "Bestela, tratu berdina emango genieke pertsona bat hil duenari eta historial luzea daukanari".

Eguaztenean batu zen, momentuz erabakirik hartu barrik, Europako Giza Eskubideen Auzitegiko sala Ines del Rio presoaren egoera dela-eta. Kasu honetan gertatzen denak 71 presori eragiten die. Tartean, Antxon Gomez eta Jesus Mari Zabarte elorriarrak eta Ramon Aldasoro otxandiarra.

Bolinagaren (Bildu) ustez, garaile eta garaituen diskurtsoa atzean uzteko sasoia da

**hitz**  
liburudenda  
artekalea 14, durango 946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

**Arriike**  
Liburudenda  
Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 94 620 18 93  
Faxa: 94 681 64 03

**Begoña**  
Instituto de belleza  
Beltzaran kolore bizia 30€  
- 12 minutuko 5 saio -  
Plateruen plaza, 7 - Durango  
Tel.: 94 681 57 21



**> DURANGO**

# Larrialdietarako zortzi etxe erregulatu ditu udalak

Etxeak bizitzeko moduan egokitzea izango da udalaren hurrengo pausoa



Intxaurrenondan dauzka hainbat etxe udalak, eta larrialdi kasuetan erabiltzeko egokitu ditu.

**> MARKEL ONAINDIA**

Durango Udalaren jabegoko zortzi etxebizitza larrialdi kasuetarako prest gongo dira aurrerantzean. Martitzeneko udalbatzarrean, etxe horien erabilera zehazten duen arautegia onartu zuten. Zortzi etxeetatik bi bakarrik daude guztiz ekipatuta; gainerako seiak bizitzeko moduan egokitzea izango da udalaren hurrengo pausoa, Goiztidi Diaz EAJren bozeroleak azaldu duenez.

Eskatzaileek beste etxe batera joateko baliabide ekonomikorik ez daukatela erakutsi behar dute, eta gehienez sei hilabetez erabili ahal izango dute etxea. Intxaurrenondan daude etxeetako batzuk. Besteak beste, honako kasu hauetan eskatu ahal izango dute etxe batean sartzeara: familiarteko arazo larri batek segurtasuna arriskuan ipintzen duenean, etxea jausteko zorian dagoenean edota ez beharren bat gertatzen denean

–suteak edo uholdeak, adibidez. Aralarrek uste du zortzi etxe beharizan horietarako larri direla, eta udal ondarea alokairurako erabiltzea eskatu dute. Horregatik guztiagatik, kontra bozkatu duten bakarrak izan dira. Bildu alde agertu da, baina proposamenetan, beharrik arrazoitzeko datuak eskatu ditu: “Ez dakigu zortzi etxe behar diren edo ez”. PSE-EEk esan du neurria behin-behinekoa dela, baina lehenengo pausoa dela.

**> GARAI**

## Hitzarmena sinatu dute Garaik eta Lantziegok

Hartu-emanetan jarraitzeko asmoa agertu dute

**> M. O.**

Gontzal Sarrigoitia alkateak adierazi du zapatuko jaialdia ondo atera zela. Sarrigoitia eta Alfonso Luis Gonzalez Egilaz Lantziegoko alkateak sinatu zuten senidetza hitzarmena eta, gainera, oroigarri bat ere ipini zuten. Horren ondoan, mahasti bi eta arte bat landatu zituzten. Etxeitako artera bisita, ekital-

dia, bazkaria eta erromeria izan zituzten ospakizunean. Bazkaria Juantxu Larruzea sukaldariak prestatu zuen.

Aurrera begira, hartu-emanetan jarraitzeko borondatea agertu zuten alkate biek. Esaterako, jaietan bisitak trukatu dituzte. Zapatuan Garain egindako ekitaldiak Lantziegok izango du buelta.



Gonzalez Egilaz eta Sarrigoitia, oroigarriaren ondoan.

**> ATXONDO**

## Jubilatuen taberna gaur esleitu gura du Udalak

**> J.D.**

Jubilatuen taberna nork kudeatu erabakitzeko udalak abiatutako lehiaketa publikora pertsona bi aurkeztu dira. Eguaztenez aurkeztutako dokumentazio osoa aztertu zuten. Gaur berriro batzekotan geratun ziren, gestioa nori eman erabakitzeko.

Orain arte, jubilatuen elkarteak izan da kudeatzailea eta alokairua jaso duena. Krisiaren ondorioz, aurreko kudeatzaileak negozioa utzi du, eta udalak bideratu du esleipena. Aurrerantzean, ura eta argia, besteak beste, udalak ordainduko ditu, baina alokairua ere berak jasoko du. EAJk hori “bidegabea” dela salatu du, jubilatuek diru sarreren %50 galduko dutelako. Gobernu taldeak dio, elkar-teagaz batzartu ostean, adostasunean hartutako erabakia dela.

**> BERRIZ**

## Indarkeria matxistaren aurkako tailerra gazteentzat

Gaztelekuan bideo sorkuntzarako tailerra eskainiko dute 12 eta 17 urte bitarteko gazteentzat

**> AMAIA UGALDE**

Berrizko gazteek emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ikus-entzunezko lanak egiteko aukera edukiko dute Aste Santu ostean. Bideo sorkuntzarako tailerra eskainiko dute Gaztelekuan, 12 eta 17 urte bitarteko gazteentzat.

Apirilaren 12an ekingo dute tailerrean, eta barikuetan izango dira, 18:30etik 20:30era. Maiatzaren 17ra arte iraungo du ikastaroak.

Berdineskola ekimenaren barruan antolatu dute bideo sorkuntzarako tailerra. Bizkaian 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan berdintasuna bultzatzeko eskola da Berdineskola.

Tailerrean parte hartzeko, ikastaroa hasi baino astebe-te lehenago, apirilaren 5a baino lehen, eman behar da ize-na [berdinbideanBizkaia@bizkaia.net](mailto:berdinbideanBizkaia@bizkaia.net) helbidera idatzita, edo 605 706 268 telefonora deituta.

**> MALLABIA**

## Azkue Literatur Saria irabazi du Garazi Mugerzak

Etxe kaleratzeen inguruan idatzi duen lana saritu du Euskaltzaindiak narrazio sailean

**> JONE GUENETXEA**

Euskaltzaindiak banatzen dituen Resurrecion Maria Azkue Literatur Sariatik hautatu dute Garazi Mugerzaren *Metamorfofia* lana. “Ez nuen saria espero, eta oso pozik nago”, azaldu du egileak. Etxe kaleratzei buruzko lana da Mugerzarena. “Etxetik kaleratzen du-

ten gizon baten inguruan idatzi dut, eta bere gurasoen etxera doa bizitzera. Hortik jarri dut izenburua, *Metamorfofia*”. Azkue sariketako 15 eta 18 urte bitarteko narrazio sailean jaso du lehenengo saria.

Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan egin zuten sari banaketa ekitaldia joan zen eguaztenez, eta Andres Urrutia euskaltzainburuak banatu zituen sariak. Aurten, 167 lan jaso dituzte Azkue Literatur Lehiaketan. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak antolatzen duen Urruzuno literatur lehiaketan ere saritu zuten Garazi Mugerza mallabitarraren lana.

Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan egin zuten sari banaketa eta Andres Urrutiak banatu zituen sariak

**> IURRETA**

## Haur Liburuaren Egunagaz bat egin du bibliotekak

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna dela-eta, ekitaldia prestatu dute gaurko, herri bibliotekan

**> AITZIBER BASAURI**

Hans Christian Andersen idazle daniarraren jaiotze egunagaz bat eginda, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatu dute apirilaren 2an. Horren haritik, gaur, ekitaldi berezia prestatu dute Iurretako herri bibliotekan.

*Zapata gorriak* ipuinaren dramatizazioa egingo du Oihana Etxegibeak. Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren haritik helerazi gura den mezua irakurriko dute, eta, ondoren, Iurretako umeek egindako li-

buruaren aurkezpena ere egingo dute. Ekitaldia 18:00etan hasiko da, eta inguruko eta munduko beste hainbat biblioteketan antolatutako ekintzekin bat egingo du. Bost urtetik gorako neska-mutuei zuzendutako saioa izango da.

IBBYk (Haur Liburuaren Nazioarteko Erakundeak) du apirilaren 2aren inguruko ekitaldien ardura. Espainiako saila da OEPLI, eta horren barruan euskal ordezkaritza lanean ari den Galtzagorriren proposamenagaz egin du bat Iurretak.



DURANGO

ERROTARITXUENA

# Arriskurik gabeko aukera bat

*Denbora ziurtatzen ari da*

## Egiazta ezazu!



**%100 - raino finantzaketa**

- Baldintzarik onenetan
- Idatziz bermatua

Sabadell Guipuzcoano



**2 log. 204.000€**-tik aurrera + BEZ

**3 log. 268.000€**-tik aurrera + BEZ



[www.sukia.com](http://www.sukia.com)  
[www.solvía.es](http://www.solvía.es)

 **sukia**  
Zure etxean zaude.  
Estás en tu casa.

946 46 20 41



**> ELORRIO****Emakumeen Kontseilua sortzea gura du Bilduk****> M.O.**

Bilduk herrian Emakumeen Kontseilua sortzea proposatu du azkeneko Berdintasun eta Gizarte Ekintzako batzordean. Horretarako, herriko emakume taldeei batzar baterako deia egin gura diete. Prentsa ohar bidez eman du Bilduk bere ekimenaren berri: “Uste dugu kontseilu hori oso tresna eraginkorra izan daitekeela gure herrian berdintasuna lortzeko konkistan lan egiten jarraitzeko”.

Bilduren iritziz, kontseilu horrek organo aholkularia, kontsultakoa eta informatzailea izan beharko luke. Gainera, erakunde horrek erabakiak hartzeko ahalmena eta gaitasuna eduki beharko lukeela uste dute. “Udal politikak diseinatu eta ezartzeko orduan emakumeok egin ditzakegun ekarpenak, interesgarriak izateaz gainera, nahitaezkoak iruditzen zaizkigu”, esan dute.

**Mujika: “Auzo kontseilua batzeko datak ipinita daude”****> M.O.**

Bilduk gutuna idatzi zuen joan zen barikuko *Anbotoren* alean, auzo kontseilurako deialdirik aspaldi ez dela egon kritikatzeko. Legegintzaldi erdia pasa eta ez dagoela auzo kontseiluaren berririk dio Bilduk gutunean. 2011ko irailean izendatu ziren auzo alkate berriak.

Joseba Mujika alkateordeak erantzun dio Bilduri zehaztuta daudela auzo kontseiluen datak

“Auzo kontseiluaren deialdi bakarra egin da, nahiz eta ordenantzak esaten duen hiru hilerik behin batu behar dela”. Batzar bat lehenbailehen deitzea eskatu dio Bilduk EAJri.

Joseba Mujika alkateordeak erantzun du Bilduk esandakoa ez dela egia. “Idatzi dute ez daukagula kontseilu horri jarraipena emateko asmorik. Ez da egia, eta froga bezala, esan ipinita ditugula urte osorako auzo kontseiluen datak”. Esan duenez, martxoaren 21ean, ekainaren 20an, irailaren 26an eta abenduaren 19an egingo dituzte.

**Ertzaintzagaz lanak koordinatzeko sistema izango dute udaltzainek**

Tetra sarean sartuko da udaltzaingoa; asmoa da lanak koordinatzea eta esku-hartzeak ez bikoiztea

**> MARKEL ONAINDIA**

Eusko Jaurlaritzako Tetra sarean sartu dute Elorrioko udaltzaingoa. Komunikazio sistema hau polizia eta DYA edota SOS Deiak lako zerbitzuek erabiltzen dute.

RDDM irrati mugikorra erabiltzen duen komunikazio sistema da udaltzainek jasoko dutena. Sistemak Ertzaintzagaz komunikatzeko balio izango die, esaterako. Beste abantailen artean, azaldu dutenez, gainerako polizia eta larrialdi

Udaltzainek gainerako polizia eta larrialdi zerbitzuen datu baseak ikusi ahal izango dituzte

zerbitzuen datu baseak ikusi ahal izango dituzte.

Ana Otadui alkateak prentsa ohar bidez esan du informazio trukaketa arinagoa izatea lortuko duela. “Esku-hartzeen bikoizketa saihestu dezake”. Udaltzainek dagoeneko badaukate sarea erabiltzeko materiala, eta euren arteko koordinazioa ere hobetu dela uste dute arduradunek. 5.537 euroko aurrekontua dauka proiektuak.

**Gaueko zaintza**

Bestalde, urtebete da udalak Durangoko ertzain-etxeagaz hitzarmena sinatu zuela, gauez herrian segurtasuna bermatzeko. Orain arte, autoz egin dute zaintza, baina hemendik aurrera oinez ere egingo dutela azaldu dute. “Udalbatzak oso positiboki baloratzen duen ahalegina da”, esan du Otadui.



Udaltzainen arteko koordinazioa ere hobetuko du sistema berriak.

**> ZALDIBAR****Berdintasun teknikaria, abendura arte kontratatuta****> I.E.**

Martxotik abendura egin dute udaleko berdintasun teknikariaren kontratua. Asteazkero orduz jardungo du teknikari horrek Zaldibarko udal-txetan lanean. Alkatetzat hartu zuenean, batzorde berezitu bat sortu zuen Bilduk berdintasunaren arlorako, eta, udalak kontratatzen du, ordutik, teknikaria.

Alkatetzat hartu zuenean, batzorde berezitu bat sortu zuen Bilduk berdintasun arloan indarra egiteko

“Uste dugu zinegotzi bat ez dagoela prestatuta sail horrek eskatzen duen lan berezitu egiteko, beharrezkoa da teknikari bat”, dio Arantza Baigorri alkateak.

Berdintasunaren arloan emaitza hobekitzeko, baina, Durangaldeko Amarkomunazgoak esku hartu beharko lukeela uste du Baigorri: “Elkarrekin jardun behar genuke arlo honetan”.

**> IZURTZA****Lepoa zaintzen ikasteko tailerra hasiko da apirilean**

Bilboko El Tai zentroak bost tailer emango ditu jubilatuen etxean apirilean eta maiatzean

**> JOSEBA DERTEANO**

Amarkomunazgoko pertsona nagusien dinamizazio sailak *Cuidar la espalda* izeneko tailerrak bideratuko ditu Izurtzako jubilatuen etxean. Apirileko astelehenean denetan eta maiatzeko lehenengoan izango dira, 16:30etik 18:00etara. Gura duenak jubilatuen etxean eman dezake izena.

Tailerrak Bilboko El Tai zentroko Anabel Mirandak eskainiko ditu, eta gaztelaniaz izan-

go dira. Zentroko kideen arabera, teoria eta praktika uztartuko dituzte: “Lepoko tentsioa deskargatzeko jarrerak landuko ditugu, lurrean etzanda edo zutik egindako luzaketan bidez”, adierazi dute. Ekintza aktiboak baino pasiboak izango dira gehiago, artikulazioak erlaxatzera bideratuak. Horrekin batera, esfortzuak egiteko edo jarrira egoteko jarrerarik egokienak zeintzuk diren azalduko dute.

**> MAÑARIA****Batukada ikastaroa apirilean emango dute****> M. O.**

Apirilean emango dute Mañarian batukada ikastaroa. Intereza agertu duten hainbat herritarregaz batzar zabalak egin dituzte azken asteetan, eta ikastarorako sasoi hori aukeratu dute. Ainara Areitio kultura zinegotziak azaldu duenez, hi-

ru egunetan garatuko da. Zapatuetan izatea gura dute, baina ikastaroa emateko enpresa bat kontratatu dute, eta haren mende ere egongo da egunak zehaztea.

Apirileko lehenengo astean izena emateko aukera egongo da. Hurrengo asteetan garatuko litzateke ikastaroa, ordubete inguruko hiru saiotan. Areitoren arabera, gaur egungo liburutegian izango da –ordurako lekuz aldatuta egongo da. Bakoitzak hamabost euro ordaindu beharko ditu.

**> OTXANDIO****Zuhaitz eguna 200 haritz eta pago landatuz ospatuko dute****> J.D.**

Urteroko ohiturari eusteko, zapatuan zuhaitz eguna ospatuko dute Otxandion. Normalean, Bizkaiko Foru Aldundiak banatzen zituen landareak eskaria egiten zuten Bizkaiko herrien artean. Baina aurten, ez dute landararik doan banatu, eta udalak erosi egin ditu.

Guztira 200 zuhaitz landare erosi ditu udalak: 180 haritz eta 20 pago. Horiek guztiak landatzeko, zapatuan, 10:00etan, ipini dute hitzordua Astikurutzeko elurzuloaren inguruan. Ahal duenak aitzurra eraman dezala eskatu dute.

Iazko zonalde berean ibiliko dira aurten ere. Iaztik hona ihartu diren landareak aldatu eta osatu barik geratu zen zonaldea osatuko dute. Ondoren, 11:00etako egongo da denentzako.

180 haritz eta 20 pago erosi ditu udalak biharko zuhaitz egunerako



**> DURANGALDEA ASTEON****Tronperri dantza taldeko bazkaria, apirilaren 13an**

Durangoko Tronperri dantza taldeak bazkaria egingo du apirilaren 13an, Plateruenean. 50. urtemugako ospakizunetan, urtero bazkaria egitea adostu zuten. Bazkalostea Luhartzek giro-tuko du. Bazkarirako txartelak Goizane tabernan daude salgai; umeei 10 euro eta helduei 18.

**Bertsolaritza ikastaroa egongo da maiatzean Otxandion**

Otxandioko Udalak lau ikastaro prestatu ditu: bertsolaritza, gazta egite, ortuetarako biofertilizante eta malabaren ingurukoak. Ikastaroetako eskolak apiril eta maiatzean garatuko dira. Izen-ematea apirilaren 5era arte egin daiteke, udaletxean. Ikastaroen prezioak 10 eta 18 euro bitartekoak dira.

**Faustegoiena sektoreko 58 etxebizitzaren zozketa egin du Durangoko Udalak**

Atzo eguerdian, Faustegoiena sektoreko 58 etxebizitzaren zozketa egin zuen Durangoko Udalak, San Agustin kulturgunean egindako ekitaldian. Babes ofizialeko etxe horiek kooperatiba erregimenean emango zaizkie interesa agertu eta zozketan zorte ona izan dutenei. Faustegoienan 118 etxe egitea dago aurreikusita, baina eskatzaileen kopurua uste baino txikiagoa izan denez, egitasmoa bitan banatzea erabaki zuen udalak.

**> ABADIÑO****Zelaieta eskolan eraikin berria lehiaketara aterako dute****> J.D.**

Zelaieta eskolan Haur eta Lehen Hezkuntzarako eraikin berria egingo dute. Eguazteneko udalbatzarren lanak lehiaketara ateratzeko baldintza orria aho batez onartu zuten Abadiño Indenpendienteak, EAJ eta Bildu alderdiek. Eraikin berriak 1,3 milioiko aurrekontua du, eta Eusko Jaurlaritzak %60ko dirulaguntza emango die.

Eraikinak solairu bi (1.138 metro karratu) izango ditu, eta gaur egun Jaurlaritza egiten ari den gimnasioaren alboan egongo da. Beheko solairuak Haur Hezkuntzako lau gela hartuko ditu; bakoitza 30 metro karratukoa. Horrez gainera, batzargela, erabilerako antzeko gela, harrera, aldagelak, komunak eta almazena izango ditu. Lehenengo solairuak Lehen Hezkuntzako ikasleak hartuko ditu, eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko (6 urtera artekoak) ikasleak ere har ditzake, beharrez arabea. Hiru gela, banaketa gela bi, irakasleen gela, komunak eta bestelako gelek osatuko dute solairu hori.

Proiektu beraren barruan, saskibaloi kantzari estalkia ipiniko diote, eta kantxa hori beste azpiegiturekin lotuko dute pasabide estali baten bitartez.

**Matienako anbulategi berria inauguratu dute**

Erizaintzarako eta medikuaren kontsultetarako zortzi gela daude Matienako anbulategian, orain

**> ITSASO ESTEBAN**

Kontsulta gelen kopurua bikoiztu eta barne banaketa hobetzeko lanak amaitu dituzte Traña-Matienako anbulategian. Eguaztenean, Osakidetza ordezkariek, osasun zentroko langileek, eta udaleko ordezkariek inauguratu zuten eraberrituriko anbulategia.

Bikoiztu egin dute gelen kopurua: erizaintzarako eta me-

dikuaren kontsultetarako zortzi gela daude anbulategian orain. Aurkezpenean azpimarratu dutenez, "argi naturala eta aireztapen hobea" dute gela berriek, lehengoan aldean.

Eusko Jaurlaritzaren 449.000 euroko aurrekontuagaz finantzatu dute obra: 2011n abiatu zituzten lanak.

Pozik agertu da Jose Luis Navarro alkatea: "Obra hasi aurretik proiektuak eztabaida eragin arren, orain denek diote anbulategia baino gehiago, ospitalea daukagula Abadiñon". Enrique Maiz Osakidetzeko ordezkariek esan duenez, "zerbitzua baldintza hobetan eskaini ahal izango dute aurrerantzean profesionalak".

"Zerbitzua baldintza hobetan eskaini ahal izango dute aurrerantzean zentroko profesionalak"



Eguaztenean egin zuten anbulategi berriaren inaugurazioa.

**Lantegi Batuak fundazioaren bigarren zentroa bisitatu dute****> I.E.**

Pilar Ardanza Bizkaiko Aldundiko diputatuak, Jose Luis Navarro alkateak, eta Oskar Zarrabietia Durangaldeko Amankomunazgoko presidentek bisitatu zuten astelehenean egoitza berria. Urbitar industrialdean dago, eta duela 30 urtetik mar-

txan dagoen Txibilako tailerraren zerbitzua osatzeko helburuagaz zabaldu dute.

Urritasunen bat daukaten pertsonak gizarteratzeko bide bezala lana darabilen fundazio-ko arduradunen azalpenak jaso zituzten ordezkariek politikoei.

Ekipo elektrikoetan, automotio eta aeronautika sektoreetarako mekanizatu eta muntaketan espezializatu da Lantegi Batuak-ek Abadiñon zabaldu duen bigarren zentro hau; 50 lagunek dihardute gaur egun, lantoki honetan beharrez.

Ofizinarako zigituak  
Fotolitoak

**Betikoak**  
flexografía

94 620 22 41

Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA

**B**etsaide  
LANGUAGE SCHOOL

Atzerrirako bidaiak (Erresuma Batua, EEBB, Alemania, Suitza, Frantzia...)

AUPAIRS Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan

STEP - Udalekuak bai estatuan bai atzerrian  
(Dueñas, Tarazona, Casalarreina, Salamaca...)

Udako intentsiboak ekainaren 27an hasteko

Erecena 3 behea • Abadiño-Matiena • 637 416 438 • [betsaidels@gmail.com](mailto:betsaidels@gmail.com)

**Goizane Azpiri Maurtua**  
Kiromasajista

Drainatze linfatikoa  
Masaje deskontrakturantea  
Erlaxazio masajea  
Ziatika, lumbalgiak, okerdurak  
Aurpegirako KOBIDO masajea

**%25eko DESKONTUA**  
lehenengo bisitan

San Inazio auzunea, 2 behea - Durango • Tel.: 675 706 599



# ▶ Berbaz

**JOSU ETXABURU** | Elorrioko Institutuko zuzendaria eta BIHEko presidentea | Ondarrutarra da



## “Ikasle guztiek arrakasta lortzea izan behar da irakaskuntzaren helburua”

Wert ministroak aurkeztutako LOMCE legea ez aplikatea espero du Josu Etxaburuk. Orain arte irakaskuntzan egindako lanaren kontrakoa dela uste du. Elorrioko Institutuko zuzendaria eta BIHE Institutu Publikoetako Zuzendari Elkarteko presidentea da Etxaburu

### ▶AMAIA UGALDE

Jauriaritzako aurrekontuen murrizketetan hezkuntza gutxi ukitzeko asmoa agertu dute. Pozteko albistea da?

Jakin arte benetan kontua zelan geratzen den, balorazio gutxi egin daitezke. Badago ideia orokor bat: irakaskuntzan murrizketak egitea etorkizunerako kaltea da. Irakaskuntzak ez du gaurtik biharrera emaitzarik ematen, eta horretara gaude ohituta; satisfakzioa bat-batekoa ez bada, ez du balio. Ikuspegi oso murrizta daukagula uste dut, eta hezkuntzak zabalagoa behar du. Hori gizartera komunikatzea zaila da batzuetan, jende asko txarto pasatzen dabilelako, baina pedagogia pixka bat egin beharko da.

Orain arteko murrizketek zelan eragin diote irakaskuntzari?

Murrizketekin gehien sufritzen dutenak laguntza gehien behar dutenak dira. Baliabide gutxiago daude haiei zerbitzu duina emateko. Gure hezkuntza inklusiboa da, eta horrelakoa izan behar du; ikasle guztiek arrakasta lortzea izan behar da helburua, ez Wert ministroak esaten duena, ikasleak bereizten hastea. Ho-

“

*Euskal Herriko eragileok, sindikatuak eta alderdi politikoak bateratu eta LOMCE ez dugula merezi esan behar dugu”*

“

*Uste dut ez dagoela ikasle bat lege aldaketaren batek ukitu ez duenik; hori ez da batere osasungarria”*

rrek gure sistema desorekatu dezake, eta agintariek argi eduki behar dute gizarte kohesioa irakaskuntzaren helburu nagusietako bat dela. Hor hezkuntza sistema publikoak euskal gizartearen bizkarrezurra izan behar du, bertan dagoen aniztasunagatik. Geroago eta ikasle gehiago dago eskola publikoan, D ereduaren gehienak. Hizkuntza ereduak agortuta daudela uste dut: interresgarria izan daiteke eleaniztasuna; ikasleak hizkuntzetan trebatzea, gure euskalduntasunetik. Ziurtatu dezagun Elorrioren, eta Karrantzan, ikasleak kompetenteak direla bi hizkuntzatan. Hori oraindino ez da betetzen leku batzuetan.

Zentzu horretan, Wert ministroaren erreforma atzerapauso izango litzateke. Zure ustez, onartuko dute?

LOMCE ez aplikatzea espero dut. Uste dut txarra dela guretzat eta komunitate guztientzat. Dena zentralizatu gura dute, eta legeak ez ditu lekuan lekuko egorak kontuan hartzen. Euskal Herriak ez du merezi horrelako lege bat, eta bateratuta esan behar dugu eragileok, sindikatuek eta

alderdi politikoek ez dugula lege hau merezi. Orain arteko erreformekin, ematen zuen ildo inklusiboa zela, eta hezkuntza eskumenak errespetatzen zirela, baina honekin ez. LOMCE aplikatzea planteatuko balitz, burukomin handiak sortuko lituzke. Jakinda legearen ondorioak txarrak izango direla, zelan ipini martxan?

Lege organikoa izanda, euskal irakaskuntzak badu aternatibetarako zirrikiturik?

Badaukagu guk kudeatzeko eszenatokia, eta bertan eragile denek parte hartu beharko genuke, gure hezkuntza sistema kaltetu barik, zelan jokatu pentsatzeko. Hala ere, badago beste arazo nagusi bat: ez dut gogoratzen zenbat lege aldaketa bizi izan ditugun. Uste dut ez dagoela ikasle bat lege aldaketaren batek ukitu ez duenik. Hezkuntza mahai gainean dago lau urtetik lau urtera, eta ez da batere osasungarria. Gu baino aurreratuago dauden herrialdeetan, epe luze baterako adosten dute legea. Agintzen duenak agintzen duela, ezingo du aldatu. Denbora behar da lege baten emaitzak ikusteko.

Adostasun hori ezingo lukete politikariek bakarrik lortu...

Gizarte eragileekin adostu beharko lukete. Politikariek gauza bat daukate txarra: ezin dute denetarik ulertu. Dakienari galdetu beharko lieke, edozein herritarrek egiten duen moduan. Oso sana da, eta oraindik ez dago halakorik gure kulturaren. Gurean, ordezkariak lau urterako izendatzen dira, eta kitto. Profesionalok ez dugu jakiten nora begiratu; jada ez dira gaitasunak landu behar? Orain bakarrik dira curriculum eta notak, eta dakienak aurrera eta ez dakienak beste alde batera? Hori da eske-ma?

Zelako animoagaz zaudete irakasleak?

Uste dut nazka sentimendu bat dagoela. Esaten digute motibata egon behar dugula, baina ezin da. Profesionalok denbora bat behar dugu egiten dugunari buruzko hausnarketak egiteko, gure ikasleen progresioa egokia den ala ez baloratzeko. Ezin gara ibili hauteskunde gau batek guregan zer ondorio edukiko duen pentsatzen. Ezin da egon haizea nora hezkuntza hara.



# Zuen eztegia San Nikolas uhartearen parean



Bizkaiko txoko honetako hondartzaren alboan, itsasoaren parean eta ikuspegi ezin hobekin, Aisia Lekeitiok aukera ugari eskaintzen ditu zuen eztegia ospakizun berezia eta berdingabea izan dadin. Terraza, bikaina da zeremonia zibila egiteko, inguru paregabea dago-eta. Ezteguko menuan ongietorriko cocktail aparta eta menu goxo-goxoa daude dastagai, eta gonbidatu guztiei gozaraziko die seguru, kalitate handiko produktuekin eginak baitaude. Bestalde, langileek eginahalak egingo dituzte zuen eztegia amestu bezalakoa izan dadin, eta horretarako, gure aretoak ordu txikitara arte erabili ahal izango dituzue. Zuen ezteguko alderdi guztiak bakarrak eta bereziak izango dira, zalantzarik gabe; izan ere, Aisia Lekeitio gustu, nahi eta aurrekontu guztietara egokitzen da.



Banketeari dagokionez, azpimarratzekoa da gure menuek duten kalitate gastronomikoa. Sukaldeko zuzendari dabil Javier Ugarte, eta bereziki zaintzen ditu kalitate goreneko lehengaiak, plater tradizional eta zaporetsuak prestatzeko. Jantokian, lantalde profesionala ari da Edurne Hortaren zuzendaritzapean, oturuntza primerakoa izan dadin.

Instalazioen inguru zoragarriaz gain, aipatzekoak dira areto handi eta zabalak: 300 lagundik gora sartzen dira. Gainera, aretoak zabalik daude gauerdia ostera arte, ospakizuna nahi beste luzatzeko eta leku berean hasi eta amaitzeko. Ezin ahaztu aretoetako ikuspegiak, gonbidatua guztiak liluratzeko modukoak.

Eskatu bisita bat inolako konpromiso barik, eta egiaztatu Aisia Lekeitiok eskaintzen dizuen guztia.



**OTSAILEKO IRABAZLEAK:**  
Aitziber Gallastegi eta Arrate Beristain. Zorionak!



# Iritzia

GUTUNAK



gutuna@anboto.org  
eguztzeneko 17:00ak arteko epea

## Durango 1936 Kultur Elkarte eta Martxoaren 31ko ekitaldiak

Datorren martxoaren 31n, durangarrok berriro ekarriko dugu gure gogora orain dela 76 urte jasandako bonbardaketa ikaragarria. Bere askatasunari gogor eustearren, faxistek suntsitu eta ikaratu nahi izan zuten gure herria.

Badira makina bat urte hainbat durangar Andra Mariko elizpean batzen garela martxoaren 31 guztietan iluntzean, oroitzapen latz hori gogoratzeko eta berriro beste inon gerta ez dadin lau haitzera aldarrikatzeko. Ekitaldi hori urteetan antolatu dute Gerediaga, Berbaro eta Kriskitin elkarteek, eta eskerrak eta zorionak helarazi nahi dizkiegu horregatik, eta ekitaldi honen inguruan antolatu dituzten hitzaldiengatik.

Durango 1936 Kultur Elkarteak bat egiten du deialdi honekin, eta dei egiten die durangar guztiei bertan parte hartzera. Garrantzi handikoa da guretzat belaunaldi berriei gertatu zena oroitaraztea, bereziki, berriro gerta ez dadin egunero-egunero egin dezagun lan.

Baina, ostera, bestelakoa da gure iritzia azkeneko urteetan Durangoko Udalak eguerdian hilerrian antolatzen duen ekitaldiari buruz. Ez dugu bat egiten ekitaldi horrekin, eta gaitzetsi egiten dugu. Arrazoiak behin baino gehiagotan jakinarazi dizkiegu udaleko arduradunei eta zinegotziei, ahoz zein idatziz.

Durango 1936 Kultur Elkarteak ez du ulertzen zelan egin daitekeen, egiten ari den legez, Adiskidetzeta eta Bakea bezalako ekitaldi hori halako ezaugarriekin:

a) Durangoko Udalak, frankismoaren garaian, oso ikerketa zehatza egin zuen faxismoa ezartzeko euren bizitza eman zuten durangarrak nortzuk izan ziren jakiteko.

b) Udalak faxismoa ezartzearren bizitza eman zuten durangarrak omendu ditu eskusiboki ia berrogei urtean.

c) Udalak ez du ikerketarik burutu Errepublikaren eta Euzkadiko Gobernuaren alde zein erresistentzia antifaxistaren alde euren bizitza eman zuten durangarrak nortzuk izan ziren jakiteko.

d) Ikerketarik egin barik, zerrenda bat osatu zuten hildako durangarrekin (bonbardaketetan hildakoak, faxismoa defendatzearen

hildakoak eta askatasuna defendatzearen hildako batzuk), eta marmolezko plaka berean omentzen ditu denak batera.

e) Marmolezko plakako zerrendan euren bizitza Errepublikaren eta Euzkadiko Gobernuaren alde eskaini zuten hainbat durangarren izenak falta dira (zer bitarteko jarri ditu udalak horiek identifikatzeko? Ez du udalak pentsatu iraintzat hartu daitekeela batzuen alde horrenbeste egitea –iraganean izan arren– eta besteen alde hain gutxi?).

f) Berradiskidetzeko eta bakea aldarrikatzeko ekintza kapera katoliko batean egiten da, eta udalak ahaztu egiten du Errepublikaren eta Euzkadiko Gobernuaren alde borrokatuz hil ziren durangar asko ez zirela sinismen horretakoak; horrela, bide batez, katolizismoa ezarri egiten da Adiskidetzeta eta Bakea aldarrikatzeko.

g) Adiskidetzeta eta Bakea aldarrikatzeko egin nahi den ekintza faxistek euren aldeko hildakoak eskusiboki omentzeko eraikitako kapera batean egiten da, hots, ahaztu egin nahi da tokiak sorrera faxista duela eta toki horretan beti omendu direla faxistak, eta luzaro beste batzuk baztertu egin direla.

h) marmolezko plaka egin aurretik, ez zaie senitartekoei jakinarazi; eta hala, jokabide jakin bat ezartzen da, benetako adiskidetzak izan beharko lukeen metodoarekin bat ez datorrena.

Horregatik guztiagatik, Durango 1936 Kultur Elkarteak ez dio babesik erakutsiko hilerrian marmolezko plakaren inguruan egingo den ekitaldiari. Zelan omendu daitezke batera askatasunaren alde borrokatzearen fusilatutakoak edo desagerrarazitakoak eta horiek erail dituzten faxistak, azken horiek askatasunaren aldeko borrokalariak, berrogeitaka urtean leku berean faxismoa ezartzearren hildakoak era eskusiboan omendu direnean? Zelan omendu daitezke bonbardaketaren urtemugan bonbardaketan hildakoak eta bonbardaketa planifikatzen eta egiten lagundu zutenak? Amaitzeko, urtero legez, Andra Mariko elizpean elkartuko gara martxoaren 31ko iluntzean.

### Durango 1936 Kultur Elkarte

azaldu aldaketa horiek zer eragin eta ondorio ekonomiko izango dituzten elkarte eta taldeengan, hori ez dela posible argudiatuz.

Ulertezina da dirulaguntza horiek eskatzeko ezarritako dagoen hilabete berean oinarriak aldatzea, eragile gehienek urteko plan-gintza dagoeneko prest dutenean.

Gauza askotan adostasunetara heldu gaitezke, zalantzarik ez dugu. Urtero, dirulaguntza hori eskatzeko epemuga otsailaren 28a da Elorrioren. Aurten, aldaketa horiek direla-eta, azken momentuan dirulaguntzen epea luzatu da, horrek talde batzuentzako ekarri dezakeen kostua kontuan izan gabe, noski. Oinarriak aldatu behar direla, ados, eztabaidatuko dugu zein parametrotan, zer bultzatu behar dugun: parte-hartzea, generoaren ikuspegia, euskara, udalarekin elkarlana, lehiaketa... eta zer garrantzi eman baikoitzari.

Baina otsailaren 21ean aldaketa egitea, kirol talde guztiei aurrez abisatu gabe, eta batera adostasunik bilatu gabe, ez zaigu batera ondo iruditzen. Gure proposamena garbia eta zintzoa izan da: utzi aurtengo oinarriak bere horretan, eta has gaitezkan aldaketa horiek datorren urtera begira egiten, aldaketa aurten egiteko beranduegi hasi zaretelako. Baina oraingoan ere, borondate falta egon da. Hori da gobernu talde honi falta zaiona: BORONDATEA.

Jon Ander Gracia - Elorrioko Bilduko zinegotzia

## SEI HANKAKO MAHAIA

### URDASPAL BOLINAGA

Bildu



## Aurrekontuak

Orain aste gutxi, gobernu taldeak (PNV) prentsaurrekoa eman zuen, aurrekontu proposamenaren berri emateko. Bertan, inbertsioak aurreko ekitaldietako soberakinekin egingo zirela esan ziguten. Zer soberakin? Azken urteetan onetsi eta egin ez diren proiektuetarako bideratuta zegoen diru kopuruarekin? Hau al da aurreztea? Azal diezazue herri-tarrei "soberakin" horiek, exekutatu gabeko proiektuetatik datozela, eta ez benetan aurreztea, eta ez benetan aurreztea zitzagunean, 2012ko erreferentziak kontuan hartu direla azaldu zitzagun, baina hori ez da egia. Murrizketak aplikatu dira zenbait partidetan, eta ez zaigula egia azaldu salatzeko dugu.

Ezin dugu ahaztu 2007 eta 2011 urteen artean udalak 60 milioi inguru gastatu zituela inbertsioak egiteko. Eta oraindik, horietako batzuek sortzen dituzten gastuak ordaintzen jarraitzen dugu. Egun, ez dago inbertsioak egiteko ahalmenik. Berriz ere eskatzen dugu herritarren parte-hartzearekin garatutako aurrekontuak diseinatzeke.

Aurten, proiektu potolo bi-planteatzen ditu gobernu taldeak (Urki-Hegoalde eta San Fausto zentro zibikoak). San Faustoko auzokideen parte-hartzeagaz zer nolako azpiegiturak behar dituzten aztertzea eskatzen dugu, beharrezkoak diren zerbitzuak bideratzeko (nagusien zentroak, etxebizitzak egokitzeko laguntzak, ludotekak...). Hau guztia Auzo Elkartearen bitartez diseinatzea proposatzen dugu, hau da, San Faustoko herritarrek izan daitezke euren auzoan zer nahi eta behar duten erabakiko dutenak. Era horretan, ikusiko dugu zentro zibikoak daukan lehentasuna edo beste zenbait proiektuk.

## Kirol taldeen dirulaguntza

Elorrioko Bilduk kiroletako dirulaguntzen oinarri espezifikoan aldaketa salatu nahi du. Hobetzeko badira, aldaketarekin guztiz ados gaude, baina horrela EZ.

Oraingoan ere, kirol elkarte eta ekintzetarako dirulaguntzen oinarriak aldatu dituzte PPren aldeko bozkarekin. Adierazi nahi dugu gu ez gaudela aldaketen kontra; are gehiago, hobetu daitezkeela uste, eta hala izan dadin nahi dugu. Baina aldaketa eta hobekuntza horiek egin aurretik, gutxieneko batzuk ezinbestekoak iruditzen zaizkigu. Lehenik eta behin, informatzea. Zergaitik eta zertarako aldatzen diren azaltzea. Badakigu, aldaketa horiek herritar eta eragileei informatu barik egin direla. Ezinbestekoa da dirulaguntza horietan interesa duen oro informatzea, eta are gehiago: beraien iritzia jasotzea. Haiekin elkarlanean egiten baditugu, hoberako eta denen onurarako izango direlako. Gobernu taldearen ustez, oinarri horiek ez dira objektiboak. Objektiboak? Zer da objektiboa izatea? Zer gabiltza baloratzen? Zenbakiak edota talde eta elkarte horiek gure herrian egiten dituzten ekintzak eta egindako lana?

Objektibotasun hori lortzeko, zergaitik ez dira mahai-inguru batean eragile horiekin guztiekin hitz egitera jarri? Lotsagarria iruditzen zaigu eragileak ez informatzeaz gain, aldaketa horiek beraingan nolako eragina izango duten ez jakitea. Ez dizkigute

### Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 94 681 65 58  
Erredakzioa:  
94 623 25 23  
Publizitatea:  
94 621 79 02  
publi@anboto.org

2013ko martxoaren 22a  
11. urtea - 494. alea

### Zuzendaria:

Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugalde.  
**Maketazioa:**  
Ainhoa Arizmendiarieta.  
**Zuzentzailea:** Goiatz Etxeita.  
**Argazkilaria:** Kepa Aginako, Zalaoa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale



&gt; MUSIKA

# “Venezuelako folklореko kantak ere joko ditugu gaurko emanaldian”

Zilar Astearen barruko Jam Sessioan joko du Lerman Nieves musikariak Plateruenean, gaur. Durangoko musika eskolako kontrabaxu irakaslea da

## &gt; ITSASO ESTEBAN

Ez da Platerueneko Jam Session saioan parte hartzen duzun lehenengo aldia, ezta?

Ez, izango dira hiru-lau urte inprobisazio saioetan parte hartzen dudala. Instrumenturen bat jotzen duen jendea parte hartzera gonbidatzen dugu emanaldi horietan: jazzeko estandarren errepertorio nahiko xumea prestatzen dugu, gura duenak parte hartu eta goza dezan.

Zelako emanaldia izango da Zilar Asteke egitarauko gaurkoa? Latinoagoa izango da, zelanbait: perkusioa ere baliatuta, jazz eta latin doinuak uztartuko ditugu Platerueneko gaurko hitzorduan. Erritmo handiagokoa izango da gaurko emanaldia: seguru entzuleek gogoko izango dutela.

Hasi zinetenetik hona, igartzen da eboluziorik saio hauetan?

Bai, igartzen da gero eta publiko gehiago datorrela Jam Session hauetara. Iaz, perkusio tailerrean jardun zutenek ere parte hartu zuten emanaldian, jendea taula gainera igo zen dantza egitera, eta hori oso betegarria da musikariontzat. Gero eta jende gehiago hurreratzen da.

Gonbidatu berezia duzue gaur. Bai, Omar Acosta nire herriki-dea gonbidatu dugu. Musika-

ri nekaezina da. Venezuelan oso musikari ezaguna da: bertako flautistarik onenatarikoa.

Zuen herriko doinuak joko dituzue elkarrekin gaur?

Bai, badaukagu asmoa Venezuelako folklореko kantak jotzeko. Baina handicap handia daukat: ez daukat cuatro venezuelarririk, eta Venezuelako musika jotzeko behar-beharrezkoa da cuatro! Lagun bati eskatu diot instrumentua, eta espero dugu hirukotea behar bezala osatzea: baxu, flauta eta cuatrodun formazioa behar da doinuek gure herrialdeko zaporea izateko. Blues eta son kubatar kantu batzuk ere eskainiko ditugu, gainera. Oso irekia da Omar, eta flauta hartzen duenean, ez dago geldituko duenik!

“

*Munduan beste inon gertatzen ez dena ari da gertatzen Venezuelan: orkestra gazteen mugimendua bakarra da”*

‘Migrazioak’ gaiaren inguruko Zilar Astearen barruan dago gaurko Jam Session saioa.

Oso interesgarria iruditzen zait Zilar Astearen gaia; izan ere, Ruben Bladesen kanta batek dioen moduan, “beti izango dut nire burua emigrantetzat”.

Asko ibili zarete Acosta eta biok munduan zehar.

Bai. Ni nire herriko Los Niños Cantores De Villa De Cura abesbatzean hezitakoa naiz: Venezuelako ume abesbatzarik inportanteena da orain. Munduan beste inon gertatzen ez dena ari da gertatzen Venezuelako gure orkestra gazteen sistemaren mugimendua bakarra da munduan. Venezuela erdik egin du proiektu horregaz bat, eta orain munduan zehar dabilta goi mailako musikari venezolarrak.

Mugimendu horren arrakastaren erakusle zarete.

Oso harro gaude, eta gure bizilekura ere mugimendu hori helarazten saiatzen gara. Finean, musika bizitzeko beste era bat da: kontsumismo txikiago eta pasio handiagoduna. Familia behar-tsuei, Caracasko auzo pobreetan bizi diren umeei dago zuzenduta orkestra gazteen mugimendua: umetatik Lehen Hezkuntza eta instrumentuaren ikaskuntza uzartzen dituen sistema da.



## Omar Acosta flautista ezaguna gonbidatu dute Durangora

Durangoko Musika Eskolan flauta flamenko tailerra emango du Acostak



“Ipurterre itzela dela esaten diot nik” dio Lerman Nieves Durangoko Musika Eskolako kontrabaxu, baxu elektriko eta perkusio irakasleak. Omar Acosta herrikideari buruz dihardu: “Baina, doan lekuan beti uzten du bere arrastoa”. Platerueneko Zilar Astearen barruan gonbidatu dute Omar Acosta flautista Durangora, *Migrazioak* gaiaren inguruko ekimenena. Platerueneko Durang(h)ots Jam Session emanaldi horretan elkartuko dira Nieves, Acosta, eta saioan parte hartu gura duten Durangaldeko musikariak, gaur.

Platerueneko gaurko emanaldian jo eta gero, Durangoko Musika Eskolako irakasle eta ikasleekin elkartuko da Omar Acosta musika eskolan, bihar: Flauta flamenko tailerra gidatuko du

Acostak, Bartolome Ertzillan. Flamenkoaren arloan, besteak beste, Joaquín Cortes dantzariaren konpainiako flautista moduan jardun izan du Venezuelako musikariak. Asko bidaiatu du, eta “artista oso inportanteekin jo du: urte askoan Venezuelako Simon Bolívar Orkestra Sinfonikoan jo izan du”, azpimarratu du Lerman Nievesek.

Villa de Cura hiriko musika eskolan ezaugutu zuten elkar Lerman Nievesek eta Omar Acostak. Euren musikagaz atzerrira abiatu ziren biak: munduko areto eta musika eskolatan euren arrastoa uzten diharduten Venezuelako musikarien erakusle dira. Euskal Herrian, Durangon dihardu musikarekiko bere pasioa zabaltzen Lerman Nievesek.



> **ANTZERKIA**

# Mugei buruzko gogoeta San Agustinen, gaur, Zilar Astean

“Bidaia bisual eta sonora” eskainiko du, egileen berbatan, ‘Biutz’ obrak

> **ITSASO ESTEBAN**

Rouge Elea konpainiak 7 urtetik gorako publikoarentzako egindako lana da *Biutz*. Durangon, San Agustin kulturgunean izango da gaur, 20:00etan, Zilar Asteako egitarauaren barruko antzerki emanaldi hau ikusteko aukera. ‘Mi-

Koreografia, musika eta bideoa nahasten ditu Rouge Elea taldeak ‘Biutz’ antzerki ikuskizunean

grazioak’ gaiaren ingurukoa da 2013ko Zilar Astea, eta mugei buruzko gogoeta dakar Rouge Elea taldeak bertara: “Mugak gainditzen dituen bidaia bisual eta sonora da *Biutz*”, diote egileek. Koreografia, bideoa eta musika nahasten dituen ikuskizuna da.

> **MUSIKA**

*Aste Santuko doinuak* deitu du Durangoko Musika Bandak martxoaren 24rako prestatu duen emanaldia. Fernando Urain Oñederraren zuzendaritzapean jardungo dute musikariek, Durangoko Andra Mari elizako domekako emanaldian.

Besteak beste, “minari buruzko musikaren adibide garbia den Pablo Solozabalen *Gernika*”, edota *Viacrucis* obrak joko dituzte domekako emanaldi horretan.

Nerea Aizpurua biolontxelo jotzailearen kolaborazioagaz jardungo dute bandako musikariek

Martin Ellerby konpositore garikidearen lana da *Viacrucis*.

Andres Granados bandako presidenteak azaldu duenez, “gurutzebideko 14 estazioei erreferentzia egiten dioten Andra Mari elizako koadroen argazkiak proiektatuko ditugu emanaldi horretan; izan ere, partiturak ere gurutzebideko 14 estazioei egiten die erreferentzia”. Nerea Aizpurua biolontxelo jotzaile durangarraren kolaborazioaz jardungo dute Durangoko Musika Bandako kideek: biolontxeloaren doina izango da obra horren haria.

Oso errepertorio anitza prestatu du Durangoko Bandak domekako emanaldi horretarako: besteak beste, musika judu sefardia, edota Andaluziako Aste Santuko prozesioetako doinuak uzartzen dituen *La madrugada* kanta ere eskainiko dute.

## Durangoko Musika Banda Aste Santuko doinuekin

Domekan, Andra Marin emango dute kontzertua



Europako eta munduko mugei buruzko gogoeta da sortzaileek antzezlanean egiten dutena: Europa eta Afrika banatzeko Ceutan altxatu zuten mugan, harresi fisiko eta administratibo horretan, oinarritzen da kontakizuna. Europara etorkizun hobe baten bila abiatzen diren afrikarrek topatzen duten harresian.

Hain zuzen, hiri horretara bidaia egin zuten 2011n proiektu honetan baturiko lau artistek, eta bakoitzak bere alorrari loturiko materiala batu zuen bertan: hango soinuak ekarri zituen An-

der Fernandezek, irudiak David Aguilar eta Pello Gutierrezek, eta gorputz mugimendurako eta eszenografiarako ideiak Corine Cellak eta Laurent Gauthierrek.

“Gizakiak bere modukoei ipintzen dizkien mugak apurtzeko amets bezala” dakartza te Rouge Elea taldekoek mailetak Durangora. Poesiak gidatuko du protagonisten bidaia.

der Fernandezek, irudiak David Aguilar eta Pello Gutierrezek, eta gorputz mugimendurako eta eszenografiarako ideiak Corine Cellak eta Laurent Gauthierrek.

“Gizakiak bere modukoei ipintzen dizkien mugak apurtzeko amets bezala” dakartza te Rouge Elea taldekoek mailetak Durangora. Poesiak gidatuko du protagonisten bidaia.

der Fernandezek, irudiak David Aguilar eta Pello Gutierrezek, eta gorputz mugimendurako eta eszenografiarako ideiak Corine Cellak eta Laurent Gauthierrek.

“Gizakiak bere modukoei ipintzen dizkien mugak apurtzeko amets bezala” dakartza te Rouge Elea taldekoek mailetak Durangora. Poesiak gidatuko du protagonisten bidaia.

der Fernandezek, irudiak David Aguilar eta Pello Gutierrezek, eta gorputz mugimendurako eta eszenografiarako ideiak Corine Cellak eta Laurent Gauthierrek.

“Gizakiak bere modukoei ipintzen dizkien mugak apurtzeko amets bezala” dakartza te Rouge Elea taldekoek mailetak Durangora. Poesiak gidatuko du protagonisten bidaia.

**GEURE DURANGALDEA****IÑAKI ETXEZARRAGA**

Musikaria



### Eman euskara elkarr!

“Bagoaz korrika! Eman euskara elkarr!...” da egunotan gure artean gehien entzuten ari garena. Korrika pausoz pauso, kultura herririk herri. Kontzertuak, antzerkiak, bertso saioak, ekimen ugari izan dira gure herrietan azken asteotan, Korrika dela-eta. Kultur agendak gainezka egunkari eta aldizkarietan.

Bi urtero errepideak jendez betetzen dira, eta kultur aretoak ere bai. Berrizen, adibidez, ederra izan zen lehengoan Hiltegeixen bizi izan genuena. Jende ugari, giro ederra eta eskualdeko talde puntakoena egurra ematen.

Baina igandean du helmuga Korrikak Baionan. Eta astelehenean zer? Batek baino gehiagok hanketako min ederra edukiko du. Baina horri aurre egiteko erarik onena berriz kirola egitea dela esaten da. Eta hori da euskararekin eta gure kulturarekin egin behar duguna.

Astelehenetik aurrera lanean jarraitu beharra dago. Ez du ezertarako balio ekimen baten inguruan gauza ederrak antolatzea, eta bukatzean, gure agendak hutsik gelditzea. Ez du ezertarako balio kontzertuetara Korrikaren aitzakiarekin soilik joatea. Ez du balio korrika Korrikaren aitzakiarekin soilik egitea. Urte osoan zehar egin behar dugu Korrika. Urte osoan zehar egin behar dugu euskaraz. Urte osoan sortu behar dugu kultura.

Astelehenetik aurrera ere... “Bagoaz kantuan! Eman musika elkarr!”

# URTXINTXA

**HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK**

Andra Mari kalea, 9 DURANGO - Tel.: 94 681 50 17

# GAER DESINFEKZIOAK

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITZAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 94 622 57 74 / 658 75 72 79 - BERRIZ



## &gt; ANTZERKIA

# Ama-semeak protagonista Pasiñoaren XX. edizioan

Ines Asategi eta Egoitz Iraurgi izango dira aurten Maria eta Jesus



## &gt; MARKEL ONAINDIA

Ines Asategi eta Egoitz Iraurgi, ama-semeak, izango dira aurten Mariaren eta Jesusen papera egingo dutenak Pasiñoan. Gertaera berezia, urte berezirako. Izan ere, hogeigarren edizioa beteko du Durangoko Pasiñoak. Datorren eguaztenean, eguenean eta barikuan antzeztuko dute Santa Ana plazan, 21:00etatik aurrera. Herenegun, aurkezpen publikoa egin zuten azken entseguetatik tarte bat hartuta.

Pasiñoa aurten inoiz baino hunkigarriagoa suertatuko zaie Asategi eta Iraurigi. Euren familiak antzeppen honetan parte hartzeko tradizio handia daukela esan dute; esate baterako, beste seme batek ere hainbat paper egin izan ditu: Herodes, Pilatos... Egoitzek 23 urte dauzka, eta 17 daroatza Pasiñoan parte hartzen.

Datorren eguaztenean, eguenean eta barikuan antzeztuko dute Santa Ana plazan, 21:00etatik aurrera

Iaz egon zen lehenengoz Jesusen azalean. Amak, hogeit urteren ostean antzeztuko du lehenengoz Mariaren pertsonaia. Entseguetan, bere semea gurutziltzatzen duten eszena izan ei da momentu gogorrena beretzat. Bigarren aldia da ama eta seme bat pertsonaia protagonisten paperean egongo direna.

## &gt; 120 laguneko antzezlan

Juan de Iciar elkarte antolatzaileak Aitziber Irigoras alkateak lagunduta egin du aurkezpena. Belaunaldien erreleboa egitea lortu dutela-eta, pozik agertu dira arduradunak. Adierazi dute 120 lagunetik gora egongo direla beharrea antzezlan aurrera ateratzeko. 6 euro balio izango du sarrerak, eta dagoeneko salgai daude Santa Anako El Arco tabernan.

45.000 euroko aurrekontua dauka Pasiñoak; gehiena argiztapenean eta soinu inbertitzen dute. Diruz lagundu dituztenei eskerrak eman dizkiete antolatzaileek, baita udalari ere. Eta, eskerrak bueltan Irigorasek, debaldeko lan boluntarioa azpimarratuz: "Eskerrik beroenak hogeit urtean lan handia egin eta jarraitzeko asmoa daukazuelako".

## &gt; ERAKUSKETA

# Martxoaren 31ra arte, 'Bakea bidez bide...' Durangoko Ezkurdi Aretoan

Gernika eta Durangoko bonbardaketak gogoratzea du erakusketak helburu



## &gt; ITSASO ESTEBAN

Ichim Heinkel eta Roland Ruisz artista alemaniarrek egindako lanak biltzen ditu *Bakea bidez bide* erakusketak. Martxoaren 31ra arte, Durangoko Ezkurdi Aretoan izango da zabalik. Durangoko bonbardaketa oroitzeko egitarauaren barrikoa da erakusketa.

Durangaldeko Artisten Elkarteak gonbidatuta ekarri dituzte Durangora, Achim Heinkel zilargileak eta Roland Ruisz pintoreak, besteak beste, Otxandion edo Durangon zehar bizikletan egindako bidaian sorturiko lanak. Gernika abiapuntutzat hartuta, eta herri horretako

Txirrindulari Elkartekoekin, Otxandio, Durango, Eibar, Ermua, Markina eta Elgetan zehar ibili ziren artista alemaniar biak hiru egunez, bizikletan. Espainiako Gerra Zibilean bonbardatu zituzten herrietan egin zituzten erakusketa honetako marrazkiak: bizikleta etapen atsedendietan, hain zuzen.

Bakearen Banderako ortzadarraren koloreak eta argazki zaharrak oinarri hartuta, zazpi marrazki egin zituen Ruiszek. Heinkelek, ostera, Bizkaiko herri horietan izan zituen harremanak eta horietatik ateratako ondorioak izan zituen bere artelanaren oinarri: zilarrezko objektuak egin zituen.

Alemaniano Pforzheim hirikoak dira Ruisz eta Heinkel: Gernika-Lumoko hiribilduarekin senidetuta dagoen hirikoak. Gernikan ipini zuten erakusketaren lehenengo, eta Ezkurdi Aretoan daukagu, egunotan.

## &gt; MUSIKA

# Aukeratu dituzte Maketa Lehiaketaren finalistak

Bederatzi talde aukeratu dituzte Durangaldeko I. Maketa Lehiaketaren finalista izateko. Epaimahaiak aukeratu dituen taldeek kontzertua eskainiko dute apirilaren 11n Durangon, 19an Zornotzan, eta 26an Abadiñon.

September Boy, Ilunbeltzean, Doktors Klub, Ymotek, Etorkizun Beltza, Raxfer, Steepers, Krome eta Kilaeua taldeak aukeratu dituzte lehiaketan aurrera egiteko.

Apirilko emanaldietan, bederatzi horietatik bi aukeratu dituzte epaimahaiak, eta maiatzaren 16an, Durangoko Plateruenean eskainiko dute kontzertua.

**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

www.plateruena.net

**MIGRAZIOAK**

**MARTXOAK 22 22:00etan**  
**DURANG(H)OTS**  
**JAM SESSION**  
 + OMAR ACOSTA. Doan.

**MARTXOAK 23**  
 21:00etan **ERBESTEA ABERRI**  
 Kriskitin Dantza Taldea. 3 euro.  
 22:00etan **MUNDUKO KOLOREAK**  
 Migratzaile elkarteak, Plateruena eta Ullannah. Doan.

**ZILARR**  
**OSTEROTZ**

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
 Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

**BIUTZ**  
 Cie Rouge Eléa

Martxoak 22 • 20:00

San Agustín KULTUR GUNEA  
 DURANGOKO UDALA

Hemen agertu gura badozu **deitu!**

94 621 79 02



**> AUZORIK AUZO****> Aisialdia**

## Eskualdeko aberastasuna bertatik bertara ezagutu du turismo sektoreak

Gerediaga elkartearen bidez, 'Merioaren ibilbidea' egin dute turismoaren sektorean lan egiten duten 15 bat enpresa eta erakundetako ordezkariak

### > JOSEBA DERTEANO

*Merioaren ibilbidea* Durangaldearen aberastasun historiko eta kulturala ezagutzera emateko Gerediaga elkarteak sortutako ibilbide turistikoa da. Sortu zutenetik hona, hainbat irteera prestatu dituzte (bazkideei, herritarrei, ikastetxeei... zuzendutakoak), baina joan zen barikukoa berezia izan zen, gonbidatuak ere halaxe zirelako. Turismoaren sektorean lanean dabiltzan enpresa eta erakundeetako 15 bat ordezkariak egin zuten ibilbidea.

Durangaldearen aberastasuna bertatik bertara ezagutzeko aukera eskaintzea izan du helburu Gerediaga elkarteak, modu horretan, enpresa edo erakunde horiek Durangaldea euren eskaintzaren barruan sartu dezaten. Pauso garrantzitsua da, euren bidez nazioarteko turista asko etortzen direlako Bizkaira eta Euskal Herrira. Asmoa Durangaldea bere osota-

sunean erakustea da, Aitziber Atorrasagasti Gerediagako gerentearen esanetan: "Aurretik hainbat batzar egin ditugu eurenkin. Durangaldean topatu daitekeen eskaintza osoaren berri eman gura izan dugu. Esate baterako, Durangaldean badaude bodegak turistentzako eskaintza bereziak dituztenak. Edo gazta eta ogia egiteko tailerak eskaintzen dira. Edota artzain baten bizimodua ezagutzeko irteerak. Nekazaritza etxeen berri ere jaso dute". Esaterako, barrikuko ibilbideko une batean, ardo dastaketa bat egin zuten Mikel Garaizabal enologoaren eskutik, Astolako sasoi bateko kartzelaren eraikinean.

Ikusitagoagaz oso gustura azaldu direla dio Atorrasagastik: "Turistek euskal identitatearen ertz eta berezitasun guztiak ezagutu gura izaten dituzte, eta turismo enpresak bide horretatik osatzen dute euren eskaintza. Hemen ikusi dutena-

gaz oso pozik agertu dira. Euskal identitatea ezagutzera emateko eskaintza zabala dugu".

Honako hauek dira *Merioaren ibilbidea* egin duten turismo enpresa edo erakundeetako batzuk: Bilbao paso a paso, NIS, Romotur, Bitravel, Bilbao turismo bulegoa, Getxo turismo bulegoa, STI eta Euskal Herria museoa.

Goizetik eguerdira bitartean egin zuten ibilbidea autobusez, eta leku hauetatik igaro ziren: Goiuria auzoa (Iurreta), Momoitioko San Juan (Garai), Garaiko elizatea, Gerediaga Foru Zelaia (Abadiño), Astolako Auzitegia (Abadiño), Muntzaratz dorretxea (Abadiño), San Agustín Etxebarria (Elorrio), eta Elorriko uria.

### "Itzelezko aldaketa egon da bost-sei urtean"

80ko hamarkadan Garaiko Momoition indusketak egin zituen lan taldeko kidea izan zen Felicitas Lorenzo deustuarra. Barikuan, Gernikan dagoen Euskal Herria Museoko zuzendaria dela egin zuen *Merioaren ibilbidea*.

Ikusitakoak "harrituta" utzi zuela onartu du: "Azken bost-sei urtean itzelezko aldaketa izan dela ikusi dut. Oso produktu interesgarria iruditzen zait. Alde batetik, paisaia, kultura eta historia ezagutu daitez-

ke, baina euskaldunon arteko hartu-emanak zelan sortzen ziren ikasteko aukera ere badago." Eskualdea bertatik bertara ezagutu ta, "guk askoz hobeto azaldu ditzakegu hemengo kontuak museoan".

*Merioaren ibilbideko* geldialdi bat Garaiko Momoition egin zuten: "Dotore baino dotoreago dago. Indusketak egin genituenean azaleratutako aurkikuntzak hain txukun eta denen eskura ikustea pozgarria da".





**> ARETO FUTBOLA**

# Aurten erreferente den Mallabiak behe-behetik ekingo dio hurrengo urteari

Sarrerak gutxitu zaizkie, eta ezin diete Hirugarren mailako gastuei aurre egin; datorren denboraldia bigarren erregionalean hastea erabaki du Mallabia futbol taldea Kirol Elkarteko kudeaketa batzordeak



Mallabia areto futbol taldea, joan zen asteburuan Goierriren kontra jokatuko partiduan. Zalaa Fuertes

**> JOSEBA DERTEANO**

Gaur egun Durangaldeko areto futboleko erreferente den Mallabiak behe-behetik ekingo dio datorren denboraldiari. Hirugarren mailan amaituko dute denboraldi hau eta bigarren erregionalean hasiko dute hurrengo. Gastuei ezin dietenez aurre egin, erabaki hori hartu du Mallabia futbol taldea Kirol Elkarteko kudeaketa batzordeak.

Euskal ligatik Hirugarren mailara alde handia dago ekonomikoki. Epailetan eta jokalarien fitxetan gastua bikoiztu egiten da: 3.700 eta 3.000 euro urtean, hurrenez hurren. Horiek horrela, 2010ean Mallabiko Udalak eta Hierros Servando enpresak hitzarmen bat sinatu zuten. Hitzarmen horren arabera, kirol elkarteak 12.000 euro jasoko zituen lau urtean; 3.000 euro urteko. Babesletzaren truke, kirol elkarteak enpresaren izea zabalduko zuen bere ekitaldi denetan. Juan Carlos Perez kirol elkarteko kidearen esanetan, "aurten laguntza hori bertan behera geratu da, eta hori kolpe handiegia izan da guretzat".

Mallabiko kirol elkarteak hainbat adar ditu (eskola kiroleko nesken saskibaloia taldea,

esaterako) eta, urtero-urtero, hamaika ekitaldi antolatzen dituzte: euskararen aldeko futbito maratoniak, frontenis eta tenis txapelketak... Horiek diru-iturri ere badira (izen-emateekin, txosna ipinita), baina modu horretara batutako diruagaz aurrekontu osoaren ehuneko txiki bat ordaintzera bakarrik helitzen dira. Kontuak orekatzeko babesle nagusi bat falta zaie.

Orain arteko jokalaria areto futbola uztekoan dira. Beste hainbat taldeetako eskaintzak ere badituzte. Datorren denboraldiari begira, orain urte bi jubenilen taldea osatzen zuten jokalaria batzen ari dira. Aurten, ezin izan dute jubenilen tal-

Orain urte bi gazte mailako taldea osatu zutenak batuko dituzte talde berrirako

"Gorago edo beherago, Mallabian areto futbol talde bat egotea nahi dugu"

derik atera diru faltagatik, eta jokalaria gehienak Bizkaiko Futbito Torneoan ari dira (federazioetik kanporako torneo bat). Garciaeren arabera, "jokalariekin berba egin dut, eta datorren urteko taldea nahiko osatuta dago". Berez, Euskal ligako jokatzeko aukera ere bazuten, baina talde eginberri batentzako erronka gogorregia iruditu zitzaion, eta nahiago izan dute beheren mailara jaitsi: "Azkenean, maila, bat gorago edo beherago, Mallabian areto futbol talde bat

egotea nahi dugu; gazteei areto futboleko jokatzeko aukera eskaini gura diegu. Hori da gure helburua".

Denboraldi amaieran beste arazo bati ere aurre egin behar diote. Abenduan hauteskundeak izan zituzten, eta ez zen hautagairik aurkeztu. Ondorioz, aurten kudeatzaile batzorde batek hartu du ardura. Juan Carlos Perezek dio denboraldi amaieran elkarteak gidatzeko bere hautagaitza aurkeztuko duela.

## Federazioak "trabak ipini eta gutxi laguntzen du"

Mallabia futbol taldea Kirol Elkarteak 1997an sortu zuten. Sei urtez Bizkaiko Futbito Txapelketan ibili izan ziren, eta 2003/04 denboraldian federatu zuten taldea. Ondoren, 2006/07 denboralditik 2010/11ra lau igoera lortu zituzten: Bigarren erregionaletik Hirugarren mailara.

16 urtean hainbeste lan kostatu zaiena gauetik goizera galtzeak "frustrazioa eragin" diola onartu du Garcia: "Irabazitakoa kantxan

galdu izan bagenu... Baina gertatu dena gertatzea pena handia da".

Federazioaren aldetik "oso laguntza gutxi" daudela ere kritikatu du: "Dena dira trabak, kobraketa... Maila batetik bestera gastuak asko handitzen dira. Oso talde egituratuak bakarrik gura dituzte. Gu, behar bada, ez gara profil horretakoak. Ulertu dezaket, baina ez zait batere justua iruditzen".

**> AGENDA****> FUTBOLA****OHOREZKO MAILA****Iurretako - Apurtarte**

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain

**LEHEN ERREGIONALA (gizonak)****Zaldia - Fruiz**

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian

**Berriz - Iraultza**

· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun

**BIGAREN ERREGIONALA****Ezkurdi - Bakio**

· Zapatuan, 18:00etan, Arripausuetan

**HIRUGARREN ERREGIONALA****Elorrio B - Larramendi**

· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

**LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)****Elorrio - La Merced**

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

**> ARETO FUTBOLA****EUSKAL LIGA****Abadiñoko Lagun - Lagun Onak**

· Domekan, 11:50ean, Berrizko kiroldegian

**Kurutziaga - Meatzari Gallarta**

· Zapatuan, 15:30ean, Landakon

**LEHENENGO ERREGIONALA****Abadiñoko Gaztetxe - Hegalariak**

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian

**Dantzari-Zamudio**

· Domekan, 17:30ean, Lanbide Heziketa Institutuan

**Sapuberri-Elorrioko B**

· Zapatuan, 17:15ean, Landakon

**BIGAREN ERREGIONALA****Racing Tolosto - B. Gizonak**

· Zapatuan, 19:45ean, Landakon

**EMAKUMEEN LIGA****Sasikoa - Soloarte**

· Zapatuan, 18:30ean, Landakon

**> SASKIBALOA****LEHENENGO MAILA (gizonak)****Tabirako Baque - Biok zerbitzuak**

· Zapatuan, 17:00etan, Landakon

**BIGAREN ERREGIONALA****Julza-Zaldia - Begoñazpi**

· Barikuan, 20:00etan, Zaldibarren

**> PILOTA****SAN PRUDENTZIO TXAPELKETA****Gazteak lau 1/erdian:**

- Larrañaga-Azpirioz / Heredia-Flores / Kandela-Zubiria Agirre-Arratibel

**Senior lau 1/erdian:**

- Mendinueta-Urbieta

Barikua, 21:00, Traña-Matienan

**> ERRUGBIA****OHOREZKO B MAILA****- DRT - Barcelona:**

· Domekan, 12:30ean, Arripausuetan

**EUSKAL LIGA (emakumeak)****- DRT - Getxo:**

· Zapatuan, 11:30ean, Arripausuetan



&gt; PILOTA

# Sei txapeletarako 140 hautagai ditu San Prudentzio txapelketak

Kadeteetan eta seniorretan binaka lehiatuko dira; gazte eta promesetan lau t'erdia barruan



Traña-Matienako eta Zelaletako pilotalekuetan jokatuko dituzte partiduak. K.Aginako

## &gt; JOSEBA DERTEANO

Joan zen asteburutik abian da 19. San Prudentzio Pilota Txapelketa. Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako 140 pilotari dabilta lehian, lau mailatan banatuta. Pilotarien zerrenda osatzerakoan, gaur egun afizionatuetan nabar-

Ander Errandoneak parte hartuko du gazteetan, Inaxio Errandonea pilotari ohia- ren semeak

mentzen ari diren pilotariengan ipini dute begi bat, eta pilotan jarraitu gura, baina punterengo txapelketetan sartzea kostatzen zaienengan bestea. Irizpide biak oinarri hartuta, txapelketa orekatua antolatzen saiatu da Abadiñoko Atxarte pilota eskola.

Pilotariak lau mailatan lehiatuko dira: kadeteek eta seniorrek binaka jokatuko dute, eta gazteek eta promesek lau t'erdia barruan.

Oro har, mailaz maila, Nafarroatik datozen pilotariak dira txapelak janzteko faborito. Durangaldeko pilotariei dagokienez, Aitor Elordik zeresana eman dezake gazteen mailan. Maila berean, Ander Errandoneak ere parte hartuko du, Inaxio Errandonea pilotari ohia- ren semeak.

## &gt; Finalak pilotaleku bitan

Txapelketaren sistema kanporaketa bidezkoa izango da. Final zortzirenak arteko partidurik gehienak Traña-Matienako pilotalekuan jokatuko dituzte. Barikuetan (21:00etan), zapatuetan eta domeketan (17:00etan) jokatuko dira partiduak. Final laurdenetatik aurrera, Zelaletako pilotalekuak kadeteen eta promesen partiduak hartuko ditu, eta Traña-Matienakoak gazte eta senior mailakoak. Traña-Matienako final biak maiatzaren lehen jokatuko dituzte, eta Zelaletakoak maiatzaren 18an.

## &gt; XAKEA

## Abadiñok eta Zaldi Baltzak igoera bana lortu dute

Abadiñoren eta Zaldi Baltzaren bigarren taldeak igo egin dira; talde nagusiek mailari eutsi diote

Amaitu da taldekako xake liga. Abadiño, Zaldi Baltza eta Larrasoloetako talde nagusiek zeinek bere mailari eutsi diote. Aurten bigarren taldeen aldetik etorri dira igoerak. Abadiño Bk Maila gorenean jokatuko du datorren denboraldian. Portugalete, Barakaldo, Balmaseda eta laurak puntu

erdiaren barruan geratu dira. Aspaldiko ligarik estuenean, Abadiño izan da igo den hiruretako bat.

Abadiño B aurten ibili den mailara (lehen erregionala) igo da Zaldi Baltza B. Hasierako helburua ez zen igotzea, baina hasiera-hasieratik ibili dira goiko postuetan.

## &gt; PILOTA

## Uriarte eta Antxia Bizkaiko txapelaren bila

Trinketean txapela berri gura dute; iazko arerio berberak topatuko dituzte gaurko finalean

Gaur, 19:00etan, Bizkaiko Trinkete Txapelketako finalak jokatuko dituzte Abadiñoko Tornosolo trinketean. Seniorren lehenengo mailako finala iazko bikote berberen artean izango da: Uriarte eta Antxia abadiñarrak Gordon eta Ugarte sopoloztarren kontra neurtuko dira. Iaz Abadiñoko biko-

tea nagusitu zen final estuan: 40-38. Seniorren bigarren mailan, oster, Zilaurren-Bilbao eta Ziarrusta-Arza bikoteak heldu dira finalera.

Gomazko paleta argentinarraren, Tornosoloko bikote bi lehiatuko dira: Pradera eta Arroitzagauregi Garcia eta Arteagaren aurka.

## ADITUAREN TXOKOA



## Juan Carlos Perez

Areto futbola

### Hainbat igoera aukeran

Durangaldeko areto futbol taldeak etxeko lanak egiten ari dira, eta denboraldiko azken txanpan sartu direnean, igotzeko aukerak dituzte hainbat taldek.

Bigarren erregionalean, Elorrioko C, mailako liderra, lehenengo erregionalean dabilen bigarren taldea (Elorrioko B) zer egingo zain dago. Elorrioko Bk Sapuberri eta Dantzariri denboraldi osoan daramaten pultsua irabazten badie, Elorrioko igoera hirukoitz baten arian egon daiteke.

Era berean, lan duina egiten ari dira Mendibeltz eta Racing Tolosto Bigarren erregionalean, eta Abadiñoko Gaztetxiek lehen erregionalean. Maila honetan, Gu Lagunak taldeak bost puntuko aldea du jaitsiera postuekiko.

Lan handia egiten ari da Presion Break ere. Berrizko taldeak txapeldunordetza lortzeko abantaila du; horrek Euskal ligara igotzeko promozioa jokatzerara eramango lituzke.

Sasikoako filialak gaitz du mailari eustea. Euskal ligan Elorrioko Buskantza Hirugarren mailara itzuliko dela dirudi, eta Sasikoa Ak eta Abadiñoko Lagunek emozioz betetako bost jardunaldi dituzte aurretik, Elorriokogaz batera igo ahal izateko. Kurutziaagak, aldiz, azkenean mailari eutsiko diola ematen du.

Azkenik, emakumeen ligan, Sasikoa taldea eroso kokatuta dago sailkapenaren erdian.

Solaguren kalea 3  
Tel.: 94 681 44 74  
Faxa: 94 621 53 74  
urtiaga.sl@terra.es  
MATIENA  
ABADIÑO

**urtiaga**  
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK  
ETA BEROGAILUAK, AXULEIU,  
ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,  
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

IURRETA

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK  
Bixente Kapanaga 19, behea - 94 681 66 73 - Iurreta  
www.zarateyelexpe.com  
Elorrioren ere aukera onak

**BODEGUILLA**

TRAÑA-MATIENA  
Tel.: 94 681 43 85





# JATETXE GIDA

**ÑAM!**

## HURI BARRENA

Huribarrena, 8 OTXANDIO

**Tel.: 945 45 01 25**

Karta. Ardoak. Eguneko menua.

Asteburuetan menu berezia.

**ÑAM!**

## JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ

**Tel.: 94 682 40 77**

Karta. Txuleta errea.

75 laguntzako jangela.

**ÑAM!**

## NERE JATETXEA

San Agustinalde, 4 DURANGO

**Tel.: 94 620 39 10**

Eguneko menua. Egurdietan: entsaladak, razioak eta plater konbinatuak

Ostegunetik igandera karta berezia gauero.

**ÑAM!**

## PLATERUENA kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a

**Tel.: 94 603 03 00**

Eguneko menua astelehenetik zapatara.

Taldeentzako menu adostuak. Askariak.

**ÑAM!**

## PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ

**Tel.: 94 682 62 46**

Eguneko menua. Karta. Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.

**Profesional onenak  
zure zerbitzura!**



# Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea 15, behe • 94 681 64 23  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Ask. etorb. 10 • DURANGO • 94 681 66 66  
www.inmoduranguesado.com  
inmoduranguesado@gmail.com

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 94 681 40 49 • DURANGO  
www.inmoetxetxo.com

## ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

### DURANGO

- 2, 3 eta logela bakarrekotako etxebizitzak alokairuan

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### DURANGO

- ARTEKALE: 8 etxebizitzaren eraikuntza hasiera goaz. 2 logela eta logela bakarrekotako. Trastelekuarekin. 140.000€ -tik aurrera.
- SAN IGNAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trasteleku. Igerilekuarekin.
- DURANGO: 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. Berriztatuko. 114.000€
- ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trasteleku.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Trasteleku eta garajea.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- BARRENKALE: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde amerikarra.

### LEKEITIO

